



**Ebazpena, 2018ko maiatzaren 8koa, Hezkuntza Berriztatze zuzendariarena, zeinaren bidez ebatzi egiten baita Euskal Autonomi Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta itunpeko IKT Heldutasuna ziurtagiriak eskuratzeko egindako deia**

Hezkuntza sailburuordearen 2017ko azaroaren 22ko Jarraibideen bitartez Euskal Autonomi Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta itunpeko IKT Heldutasuna ziurtagiriak eskuratzeko deia egiten da. Hiru maila daude, eta ikastetxeek edozeinen ziurtagiria eska dezakete, aldez aurretik, aurreko maila dutela egiaztatu behar izan gabe.

Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, aztertuak eta sailburuordearen 2017ko azaroaren 22ko Jarraibideetan ezarritakoarekin bat etorritik eta Hautaketa Batzordeak proposatuta, hau

#### **EBAZTEN DUT:**

Lehenengoa.- Eranskineko zerrendan azaltzen diren ikastetxeei bertan jasotzen den IKT Heldutasuna maila esleitzea.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka egiteko, ikastetxeek erreklamazioa jar diezaiokete Hezkuntza sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 8a

LUCIA TORREALDAY BERRUECO  
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA